


amosek kaskoz-kasko lasterketa irabazi zuenean.



● BOB EDME

Euskal Herriko Lasterketa azken proba

en txapelduna. Donostia, Baiona,
nean igandean eginen dutenak
atu Euskal Herriko bigarren
elketa irabazteko aukera handiak
ara solasean.

eta Itziar Urdangarin izan ziren irabazle;
Baionako Kaskoz Kasko lasterketan (24
km.), Marcos Ramos eta Josune Tercero;
Bilboko Zubiarteko krosean (7,6 km.), Unai

Sanz de la Fuente; eta Gasteiz Hiria lasterke-
tan (10 km.), Gotzon Sanz eta Nieves Zarza.

Eta Iruñekoa igandean jokatu da, 7,6 ki-
lometroko zirkuitu batean. Lasterkariak goi-
zeko hamaiketan abiatuko dira, Sasasate
pasealekutik. Alde Zaharreko hainbat karri-
katatik pasatu eta gero, Belosoko malda lu-
zea jaitsiko dute, Magdalenaraino. Igoera
Labriteko aldapatik eginen dute, eta helmuga
Sarasaten izanen da. Korrikalari guziei
elastiko bana emanen zaie oroigarri gisa.

Hamazortzi urtetik goitiko edozein laster-
karik parte har dezake igandekoan. Izena al-
dez aurretik emateko gaurkoa da azken egu-
na. Atanasio eta Zariquiegui kirol dendetan
egin behar da. Bestela ere, lasterketako
egun berean eman daiteke izena irteeran
bertan.

→ Asier Azpilikueta


Alfredo Lusarreta

«Bakarkako kirola delako gustatzen zait lasterka egitea»

HAMASEI URTE ZITUENEAN LOS AN-
gelesko Olinpiar Jokoak ikusi zi-
tuen Alfredok, zuri-beltzeko tele-
bista batean. «Atletismoak guztiz
harrapatu ninduen orduan»,
onartu du. Bere bizitzako taldea
Pamplona Atletico izan da, ber-
tan hamabi urte eman baitzituen.
Beste hainbat taldetan ere izan
da. Baina, Mizuno talde erdipro-
fesionalean zegoenean, hestea
izoratu zitzaion eta pare bat
urtez izan zen atletismoan ari-
tu gabe. Aurten
EGUNKARIAren
txapelketarekin
berreskuratu du
lasterka egiteko
aukera. Nafarroa-
ko txapelduna iza-
na da krosean eta
pistan.

Lanbidez ospita-
le zaindaria da Al-
fredo. Baina egu-
notan bere haur
jaioberria zaintzen
du bakarrik. «Urriaren 13an jai-
zen, aitari ohore egiteko», erran
du harroxo.

Egunero entrenatzen da Alfre-
do. «Urtean bost edo hamar egu-
netan bakarrik hartzen dut atse-
den», dio. «Hamazazpi urtetan
distantzia guziak egin ditut eta
erran dezaket guztietan kirol ho-
nek asko exijitzen duela». Laster-
ka egiteari utzi zionean maratoia
egiten zuen; hori zen gehien gus-
tatzen zitzaion distantzia. Gaixo-
tu zenean bestelako lasterkete-
tan hartu zuen parte. Urtebetean
euskara ikasi du, zazpi bat ikasta-
ro trinko egin eta gero. «Euskal-
dun berri-berria naiz eta nire eus-
kara nahiko kaskarra da». Ez da



● JOXE LACALLE

egia; mantso min-
tzatzen da, baina
ongi.

Alfredo gehi-
etan Gaztelugibela
aritzen da laster-

kan. Han lasterkari mordoa el-
kartu ohi da. Hala ere, bakarkako
kirola dela erraten ahal da eta,
hain zuzen ere, horrexegatik gus-
tatzen zaio Alfredori, berak aitortu
duenez. «Denbora asko dago
pentsatzeko. Eta, parkea leku
atsegin denez, jende asko ikus-
ten duzu, naturari lotuta zau-
de...».

Alfredok uste du Antonio Etxe-
berria dela igandekoa irabazteko
faboritua. «Badakit nik ez dudala
irabaziko. Lesionatuta izan naiz.
Eta duela hiru aste hasi nintzen
berri suabe-suabe entrenatzen.
Baina ahalik eta ondoen egiten
saiatuko naiz, hiru lehenbizikoen
arte egoteko, behintzat».

Puntuak
295 puntu
Sailkapenak
Donostia 6.
Baionan 3.
Gasteizen 2.
Jaioteguna: 68-X-03
Jaioterria: Iruñea
Taldea: Hiru Herri

Rosa Orofino

«Ni ez naiz ateratzen bakarrik entrenatzeko»

ASTEAN BI EGUNETAN ENTRENATZEN DA
Rosa. Ordubetez. Senarrarekin txanda-
katzen da haurra zaintzeko eta entrena-
tzera joateko. Hala ere, egun hauetan
senarra gaixo izan denez, apur bat
gehiago entrenatu da. Burlatako in-
txaustian ibili ohi da beste hiruzpalau
lagunekin, baina orain, neguari begira,
nahiko argitasun duen zirkuitu batetik
abiatzen da.

Hiru Herri taldekoka da Rosa. Beste
Iruñan ere ibilia da. 26 urte dituenetik
egiten du lasterka. Ez du beste kirolik
egiten. Langabezia dago.


Rosak uste du atletismoa
nahiko kirol bakartia dela. Bai-
na bakarrik ez entrenatzen
saiatzen da. «Entrenatzeko
beste inor ez dudanean, nahia-
go dut etxean gelditu», dio.

«Ni ez naiz ateratzen bakarrik entrena-
tzeko».

Argi dago gustuko duelako egiten
duela lasterka. EGUNKARIAren txapelketako
lasterketetan zein postutan
gelditu den jakiteko senarrari galde-
tzen dio. «Bilbora ez ginen joan, ezta?». Eta
kazetariak jakinarazi dio sailkapen
orokorrean bigarrena dela. Ez du orai-
no titulurik eskuratu. «Bat ere ez».

Hamar eta hamahiru kilometro egin
ohi ditu. Maratoi bat ere egin du. Hala
ere, Baionako krosa «izugarria» iruditu
zitzaion. «Horrelakorik ez nuen egin»,

● OSKAR MONTERO



Puntuak
295 puntu
Sailkapenak
Donostia 3.
Baionan 2.
Gasteizen 5.
Jaioteguna: 66-XI-11
Jaioterria: Iruñea
Taldea: Hiru Herri

erran du. «24 kilometro horietan gehie-
nak aldapan gora ziren. Helmugara iritsi
nintzen nire senarrarekin batera joan
nintzelako eta une oro animoak eman
zizkidalako. Baina ni leher eginda ailega-
tu nintzen. Hurrengo egunean ezin mu-
gitu nengoen, hanketako minarekin».

Lasterketaren bat baldin badago, ho-

rretan du pentsamendua Rosak, eta
onartu du igandekoak loa kenduko dio-
la. «Gustatzen zait inguruan jendea ani-
matzen ikustea», dio. Iruñekoa atsegin
dituen lasterketen gisakoa da: hiri bar-
neko zirkuitu bat, itzuli bakarrekoa.
«Ahal dudana eginen dut igandean.
Hori bai, denak emanda».